# GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

8. Zka.

Gasteiz, 1993 Uztaila

# JAZZ Gasteizen





BETAURREKOEK EZ DIZUTE IRUDIA BAKARRIK EMATEN.
ORAIN SOINUA ERE BAI

Ray-Ban®

*MultiOpticasek Ray-Ban ereduko edozer erostean irrati digital bat oparitzen dizu.*
*MultiOpticasen establezimendu batera joatea besterik ez duzu;*
*bertan zerbitzu pertsonalizatua eta ikusmena zaintzeko teknologiarik*
*modernoena aurkituko dituzu.*

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 ( anbulategi aurrean ) GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ERNE!

Aldizkari hau hilabetero iristen zaizu etxera euskaltzale talde bati eta berton iragartzen direnei esker. Kalitatezko aldizkari euskaldun bat egiteko behar-beharrezkoa zaigu iragarleen laguntza.

Bidai bat egin behar baduzu, liburuak, bonbilak, leitzeria, betaurrekoak, giltzak, oinetakoak, altzairuak edota beste zernahi erosteko orduan,... euskara ikasteko, lagunekin pintxo, basoerdi edota afari bat egiteko:

## Erabil ezazu

GEU GASTEIZ

# eskerrik asko!

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

GEU Gasteiz
Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria
1691 Postakutxa
GASTEIZ

**Zuzendaria**
Joseba Gorostiza

**Erredakzio-batzordea**
Iñigo Barruso
Xabier Etxaniz
Mikel Garmendia
Txema Millan
Patxi Salaberri

**Kazetariak**
Leire Lopez de Aberasturi
Inaxio Lopez de Arana
Ismael Diaz de Mendibil
Olatz Irizar

**Publizitatea**
Martin Rezola

**Maketazioa**
Blanka Agiriano
Alex Badillo

**Argazkilariak**
Lukas Etxeberria
Joseba Olalde
David Aguilar
Joseba Unzalu

**Kolaboratzaileak**
Agurne Aizpitarte
Asier Garro
Txipi Ormaetxea

**GEU elkartearen** babesarekin

5.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua
VI-582/92

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik

# Arabako Campusetik herrigintzan

Zerbitzu publikoa den neurrian, euskal gizarteak dituen premiei eta eskakizunei erantzun egokia ematen saiatu behar du Euskal Herriko Unibertsitateak. Honek esan nahi du, batzuk bestela uste badute ere, unibertsitateak herrigintzan, eta euskalgintzan ere, baduela egitekorik.

Erronka handiei egin behar die aurre, hortaz, egunotan EHU-k. Jadanik ematen diren titulazioak egokitzeko orduan nahiz titulazio berriak martxan jartzekoan nahiz ikasketak euskaraz eskaintzeko orduan ezin dugu begien aurretik galdu zer den eskatzen zaiguna.

Eta, hain zuzen, datozen hilabeteetan bizi beharko dugun eztabaida galdera honen inguruan ibiliko da, hots: ikasketa berriak eta inbertsio berriak zer irizpideren arabera egingo dira? Eta, bestalde, nola egingo da banaketa campusen artean? Zein izango dira irizpideak eta lehentasunak?

Hiru campusetan dugu banatua Euskal Herriko Unibertsitatea. Beraz, hiru campusak ditugu Euskal Herriko Unibertsitate. Baina hiruretan Arabako campusa dugu txikiena. Aurrerantzean ere hala izango da, noski. Berez legokiokeen baino txikiago da hala ere, zeren "sortzen" duen baino ikasle kopuru txikiagoarentzat eskaintzen baititu ikasketak: Arabak ikasleen %15a ematen dio unibertsitateari, baina unibertsitateak Araban % 10 ikasleri egiten die leku, gutxi gora behera. Hortaz, portzentaia horretara jo beharko genuke eskaintzan ere, campuskako ikasleen banaketa orekatua izatea nahi badugu.

Haundiak gero eta handiago izateko joera izaten duela jakin arren, unibertsitate orekatua nahi badugu joera "natural" horri aurre egin beharko diogu.

Horregatik, oraindik portzentaia zentzuzko horretatik urruti samar aurkitzen garenez, espero dut unibertsitatearen gidariek eta herri erakundeek Arabako campusaren premiak, eta ahalak ere, kontutan hartuko direla. Horrela, EHU-k zabalduko dituen eskaintza berriak hona ere iritsi beharko dute. Jakinik alor honetan egiten dena Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskal Herriaren onerako izango dela. Unibertsitatetik ere herrigintzan aritu behar dugu

*Patxi Goenaga*
EHU-ko Arabako Campuseko
Errektoreordea

**Aldizkari hau dohain, debalde, banatzen da. Jaso nahi baduzu bete ohar hau eta bidali 1691 posta kutxara**

**GEU GASTEIZ ALDIZKARIA ETXEAN DOHAIN JASO NAHI DUT**

IZENA: ..................................................................................................

DEITURAK: ..........................................................................................

KALEA: ............................................ Zenb.: ..................... Pisua: .............

Kode postala: .............................

HERRIA: ..............................................................................................

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



## XABIER RICO

### Musikari handi eta berakatzen garaia

I

Garai bateko hippizaleok
daukagu poztu beharra
hilaren bian baitatorkigu
Bob Dylan maisu zaharra.
Gero jazzaleen txanda helduta,
erritmoaren sugarra,
honek emango digu parrandan
piztuko zaigun indarra
ta nik jarraian eman beharko
dizut aholku azkarra:

II

Santiago egunez eros ezazu
berakatz sorta mardula
mozkorren kontra aurkitu baitut
izugarrizko formula,
jaietan gero, edanez gero,
hori nola disimula?:
Nahi aina edan, berakatz pixkat
hagin arten duzula
odol antzeko kalimotxoak
bihur ez zaitzan drakula

*Postariak ekarriak*

## Gu ere intsumiso

Uztailaren 15an Luis Zulaika gaztea epaituko dute soldaduzkara joateari uko egiteagatik. Bera izango da Gasteizen epaituko den lehen arabarra.

Bestela ematen badu ere, epaiketa hau politikoa da. Ondo saiatu dira politikoak intsumisioa kriminalizatzen, gizartea-rekin elkartasunik batere erakusten ez duten gazte alferren kontua balitz bezala. Horregatik «bota» die arazo larri hau epaileei, urte luzetan gainetik nola kendu ezin asmaturik ibili ondoren.

Oker dabiltza. Auzi honek ideia jakin batzuk epaituko ditu, ez besterik eta ideia kontuak ezin dira judizio bidez kon-pondu. Epaileak zeharo aztoratuta dabi-ltza, nondik nora jo ez dakitela, Jakina horrelakoak gertatzen dira derrigorrez bete behar duten legeak topo egiten duenean gizartearen gehiengoaren uko eta ezetzarekin, gizartea militaris-moaren aurka baitago.

Politikoa da, bai, arazoa. Eta erantzun politikoa eskatzen du intsumisioak. Batzuk onetsi behar izan dute hori. Orain gutxi, Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak; pp eta psoe izan ezik, beste alderdi guztiek eman zuten botoa proposamenaren alde. Kalearen deia jaso behar izan zuten nahitaez, ohiartzun ozena du eta. Asko baikara Luisek bezala pentsatzen dugunok. Ez bakarrik soldaduskara joan behar adineko mutilak, baita emakumeak,... edozein adineko pertsonak, heldu, zahar nahiz haurtxo ere.

Arazoa gizarte osoarena da, gutxi batzuk izan arren zigortu nahi dituztenak. Gure kontzientzia epaituko dutelako... **gu ere intsumiso gara!**

*LATA*
*Luisen aldeko*
*talde antimilitarista.*

## HEMEROTEKA

❑ «Gasteiz bideogintzaren hiriburua izatea nahi dute erakundeen eta hala izateko dihardugu besteok»

**Manuel Palacios**
(Gasteizko musika bideoaldiko zuzendariak)

❑ «Berbena musika ez da jenero txikia»

**Elkar argitaletxeko arduradunak**
(Josel Anaiak taldearen azken diskaren aurkezpenean)

❑ «Ez nuen inoiz buruan izan dena uztea, baina egia da ahalik lasterren amaitzea nahi nuela»

**Alberto Zerainek**
(Everesteko gaina egin duen arabar espedizioko partaidea)

❑ «Araba Euskaraz: aurtengoa, benetako edizio arrakastatsua izan da»

**ARABA EUSKARAZ-antolatzaileak**

❑ «Azken hitza Arlauckasek du»

**Josean Kerejeta**
(Baskonia taldeko lehendakaria)

❑ «Udal guztiak zorpeturik dabiltza eta antza denez, hemen ez dago kontzerturik antolatzen duenik»

**PKO**
(Potato taldearen abestariak)

EUSKARAZ

- **2** eta **5 ordu** Uztailean eta Irailean
- **Urrats Guztiak**
- **Barnetegiak:** uztaila, abuztua eta Irailean
- **Gazteentzat ikastaroak** uztailean

**GASTEIZ** euskaltegia
Errege katolikoak, 15-C.
Tfnoa: 28 89 22
**PINTO** euskaltegia
Pintoreria 74.
Tfnoa: 28 97 80
**ZALDIARAN** euskaltegia
Zaldiaran Plaza, 16.
Tfnoa: 24 49 05

ika

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Alaves:
## Hurrengoan izango da.




**Beste urte batez bigarren-B mailan egon beharko da alaves taldea. Aukera onak zituen baina bertako jokalaria den Roberto Urbinak esan zuen bezala: *«Playoff-etan oso gauza arraroak gertatu ohi dira».* Mendizorrotzan inoiz baino jende gehiago egon omen da. Datorren urtean, berriz saiatu beharko gara. Zorte on!**

ELKAR
FAGOR
SUKALDEKO HALTZARIAK
Manuel Iradier, 37
Tfnoa: 25 45 88
Faxa: 27 81 93
01005 - GASTEIZ



ALBENIZ
MOBILIARIO
Cercas Bajas, 8
Telefonoa eta Faxa 28 74 82
01008 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Kalea Mintzo

## Hiri garbia?

Ingurugiroa modan dago. Horren inguruko kezka behintzat nabarmen zabaldu da azken urteotan. Udalak, honi jarraiki zenbait ekimen jarri dutu martxan: paperaren birziklaia, ormen garbiketa edota hiri garbiagoa aldarrikatzen duen telebista iragarkia. Azken honi heldu diogu eta kalera atera gara iritzi eske.

***1.- Zer deritzozu hiri garbiagoa aldarrikatzen duen iragarki horri?***
***2.- Zerbait egiten al duzu hiri garbiago horren alde? zer hobetuko zenuke?***



**ELISA GARCIA. (Enplegatua)**

1.-Iragarkia ondo dagoela iruditzen zait. Halere mezua publizitate hutsean gelditzen da. Bestalde, onean ezer lortzen ez bada ezin dira isunak baztertu. Ea horrela jendea zuzentzen den.

2.-Ohizkoa: paperak paperontzietara, zarama ateratzeko ordutegia errespetatu. Erdialdea da, ene ustez , gutxien zaindurik dagoena: hiriaren kanpoaldea hobeto dagoela uste dut.

**DAVID MUSITU. (Irakasle jubilatua)**



1.-Ez dut ikusi baina onerako bada ondo dago. Isunak jarri aurretik, jendea hezi egin beharko litzateke. Zigorra azken pausua izan behar da.

2.-Paperak bere lekuan utzi, naranja eta platano azalak bildu. Egia esan, ipudikoren bat hartzeko zorian egon naiz batzutan. Zikinkeria ugari dago: zakurrena axolagabekeria handia izaten da; paperontziak nahita erretzen dituzte; ezin zara arkupeetatik pasatu pixerrekez josita egoten direlako. Txerrikeriak!... guzti honetaz asko hitz egin baina ezer gutxi lortu da.



**NAGORE DIEZ. (OHOko ikaslea)**

1.-Bai, ikusi dut, ideia ona da, noizbehinka beharrezkoa izaten da horrelako gauzak gogoraraztea. Isunak batzutan ere lirateke gaizki egongo baina ez lirateke handiak izan beharko

2.-Paperan beren lekuan botatzen ditut, pipak ez beti! Botata uzten diren txikleek edo auzoak ogi apurrez betetako mantela astintzen ikusteak nazka ematen didate.

MOBILIARIO kide
apaindura
Cercas Bajas, 27 • Tfnoa: 14 41 95 • 01008 - GASTEIZ-

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



## GOTZON DIAZ DE GARAIO. ( Postaria)

1.-Zineman ikusi dut. Haurrei zuzenduta dago eta ez du arazoan sakontzen. Informatu behar da, baina gero baliabideak jarri eta azken errekurtso gisa isunen aukera aztertu. Erreza da kalean txiza egiten duenari isuna jartzea baina lehenbiziko eginkizuna tajuzko komun publikoak eraikitzea litzateke.

2.-Saiatzen naiz: paperak paperontzira bota, zakarra bere orduan jeitsi, ez dut txakurrik... Nik uste dut Alde Zaharra dela gutxien zaindu den lekua; zikin-zikina dago: txizaz, zakarrez eta txakur kakaz betea



## MARISA IGLESIAS.( Etxekoandrea)

1.-Dirua alferrik galtzea da. Zenbaitentzat eragingarri izan daiteke, niretzat ez. Isunak beharrezkoak dira zenbait kasutan, txakurrekin adibidez.

2.-paperak, zigarrokinak eta halakoak lurrera ez botatzen saiatzen naiz. Dena den, Gasteiz nahiko txukun dago.



## JULEN ESCABIAS. (etxeko lanak)

1.-Iragarki batek ez du ohiturarik aldatzen, gainera badaude hiriko garbitasuna baino arazo larriagoak. Inork ez dio arazoaren mamiari heldu nahi: hiria elkar ezagutzen ez den jende multzo itxuragabea da. Hau inork onartu nahi ez duenez, nekez konponduko dira arazoak.

2.-Ezer ez, ahal dudan bakoitzean zikintzendut. Paperontziak ikusteak zakarrak lurrera botatzera bultzatzen nau. Hobe da kontzientzia izatea garbia eta ez hiria. Arazoa sakona da: zertarako ditugu txakurrak hirian, hau ez da bere lekua, hobe hau hausnartzea eta ez zakur kakekin zer egin.



## ALICIA MARTIN LEON. (Etxekoandrea)

1.-Hiria txukunago egoteko baldin bada, ondo dago. Isunak ere beharrezkoak badira jarri eta kitto. Jendeak ondotxo daki zer egiten duen kalean zikintzen duenean.

2.-Ez dut zaborrik botatzen lurrera, zarama ateratzeko ordutegia betetzen dut, eta abar. Hiria nahiko garbi dago, ni konforme nago egon naizen hiri guztietatik garbiena da Gasteiz.



## ANGEL GARNICA (Jubilatua)

1.-Ez dut ikusi baina iragarkiak baliagarriak izaten dira. Hiria txukun izateko gauza itxurosoak eduki behar dira. Paperontziak baldin badaude paperak bertara botatzen ohituko gara. Paper batengatik isuna jartzea gehiegizkoa da baina parkean kaka egiten duen txakurraren jabeari bai ipiniko niokeela.

2.-Adibidez, paperontzi bat aurkitu bitartean paperak poltsikoan gordetzen ditut. Txakur kaken arazoa bai konpondu beharko litzatekeela edota baita jendeaurrean erretzearena ere.

GARNICA
FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK
Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73

# Bazenekien...?



*... San Vicente edo Done Bikendi eliza Gasteizko defentsarako Antso Jakitunak hegoaldean eraikitako gaztelu-dorrearen zimentuen gainean altxatu zela?*

*...1200ean Gasteiz Gaztelako Alfontso VIII.aren menpera pasatu ondoren hasi zela zerbitzu erlijiosoetan erabiltzeko birmoldaketa egiten?*

*... Gaur eguneko eliza 1484ean hasi zela eraikitzen eta hiru barneluzego eta zenbait aldare eta kapera dituela?*

*... Ikusten den dorrea 1860an erantsi zitzaiola, Pantaleon Iradierrek diseinatua eta M. Sarazibarrek bukatua?*

*... Sarreran ur bedeinkaturako jarrita dauden maskortzar biak Manilatik ekarriak direla, Montehermoso markesak oparituak?*

*... Maskortzar horiek seina arroba (70 bat kilo) pisatzen dutela eta Parisko Done Eustakio elizan daudenak bezalakoak direla?*

*... Maskorren ondoan harri belzez estalitako bi hilobi daudela: bata terreaturikoentzat eta bestea borreroentzat?*

KILIKATZEN
KALE ANIMAZIOA





# Oporrak: bidaiatzeko garaia











**C porrekin batera bidaiak etortzen zaizkigu burura. Urte osoa lanean edo ikasten aritu ondoren ohizko bizilekuetatik ihes egitea omen daukagu gogoko guztiok. Dena den bidaiatzeko zailtasun gehienak dituztenak gazteak dira, kontrakoa badirudi ere. Traba guztien gainetik Europa ezagutuko duten neska gasteiztar batzuekin mintzatu gara.**

azkarprint
lehen fasprint
Cercas Bajas, 4
Tfnoa: 27 92 51
Fax: 25 42 10
Inprenta zure zerbitzura

- Eskutxartelak
- Fakturak
- Eranskailuak
- Gonbite txartelak
- Aldizkariak
- Txartelak

Zerbitzu bereziak:

- Paper birtziklatua eta ekologikoa
- FOTOKOPIAK KOLORETAN
- Kamisetetan estanpaketak

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Adina eta dirua:
## bereizketa nagusia bidaiatzeko orduan





**GEU GASTEIZ: Zer nolako bidaiak eskatzen ditu jendeak gaur egun?**

**BIDAI AGENTZIA:** Bereizketa bat egin behar dugu adina eta diruaren arabera.

Familian joaten direnak adibidez garai hauetan irleetara joan ohi dira apartamentuetara. Ezkongabeak edo umerik ez dauzkatenek, berriz, bidai luzeagoak egiten dituzte Tailandia edo Kenia aldera. Hala ere, esan beharra dago bidai hauek oso garestiak izaten direla eta gutxi batzuk baino ez daukate haraino joateko aukera.

Gazteenak bidai merkeenak hautatzen dituzte normalean, mediterraneo aldera doazen bakan batzuk badaude ere, gehientsuenak Europa ezagutzeko irrikitan egoten dira. Autobusezirkuituetan egiten dituzte horrelako bidaiak.

**G.G: Gazteentzako ba ote dago eskeintza berezirik?**

**B.A:** Egia esan, udari begira, abuztuari begira hain zuzen ere, ez dago inorentzako eskeintza berezirik. Abuztua denboraldi altua da eta prezio guztiak igotzen dira.

Ekaina eta uztilean merkeago ateratzen da bidaiatzea baina hala ere gazteentzako izugarrizko abantail famatu hoiek ez dira esistitzen.

Lehen aipatu ditugun autobus zirkuitoak ateratzen dira merkeenak, Italiako zirkuitua, Paris-Holanda ibilbidea, edota Marruekos aldea. Azken aldian gazte ugari joaten da kirola egitera, rafting egitera, zaldian ibiltzera... Bidai hauek ez dira horren garestiak baina astebukaerakoak bakarrik izanen dira.

**G.G: Bidaiatzea gutxi batzuren pribilegioa izaten jarraitzen du?**

**B.A:** Gazteentzako dudarik gabe bai. Gazte gehientsuenak ikasten edota langabezian daudea, sosik ere ez du gehiengo batek. Eta oraindik diru kopuru handia behar da bidaiatzeko. Agian honegaitik gazte gehienak bere kontu bidaiatzen dute, motxila sorbaldetan, trena hartu eta ahal duten lekuraino joaten dira.

Jendea nagusiarentzat ere ez da gauza erreza bidaiatazea. Hegoamerikara joataekotan bertan bizitza merkea izan arren, bidai txartela oso garestia da; eta Europara joataekotan txartela merke bada ere oso garestia dago bizitza han. ❑

Ardatz
itzulpen eta euskara zerbitzuak
Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

UDABERRIA elkartea
•Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat
•Musika eskola
•Dantza
Uruguay, 9 •Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Inter-rail:
## bidaia eta abentura



Egun hauetan gazte asko opor hauetako bidaia prestatzen arituko dira, ahal dutenak behintzat. Leku berriak ezagutzea gazte ororen gustokoa bada ere, gehientsuenak leku berri hauek ezagutu gabe bueltatu beharko dira datorren irailean ohizko bizitzara; izan ere egun hauetan gazteak trabarik handiena aurkitzen dute bidean: dirua.

Bidaiatzeko aukera dutenek bere kontu egiten dute, agentziarik gabe. Kanpin denda eta motxila hartu eta aurrera. Hala egingo dute Amaia, Ainhoa, Vanessa, Ohiana eta Pilar neska gasteiztarrek. Beraien asmoa Europa ezagutzea da, Estatu frantsesa zeharkatu eta Belgikatik hasita.

Trenez egingo dute bidai osoa, "inter rail" delako txartelarekin. Txartel honekin Europa osoko 2. mailako trenetan bidaiatzeko eskubidea dute, hilabete bateko epean.

Alemanian igaroko dute denbora gehiena, bertan lagun bat bait daukate. Hemendik Pragara joateko asmoa daukate. Ondoren gertatuko dena ez dakite, diruaren arabera; ordurako inor ez bait daki zenbat diru geratuko den.

Talde ugaria direnez albergeetan lekua ez topatzearen beldur dira, beraz kanpin denda eramango dute beren motxilen artean.

✔ **«Inter-rail» txartelaren bidez, hilabete osoz, Europako tren guztietan bidaiatzeko eskubidea zure esku.**

Lagun hauek aspaldian dihardute bidai hau prestatzen, eraman beharreko paper guztiak, gida liburuak lortzen... Hala ere prestaketa guzti hau ez zaie arazoa iruditzen, arazo nagusia beti bezela dirua bait da. Urte osoz aritu dira honetarako aurrezten eta aho batez onartzen dute zoritxarrez edozeinek ezin dezakeela gaur egun horrelako bidaia egin.

Neska hauek urtean zehar zertxobait aurreztea aholkatzen diete beste gazte guztiei, gazte zaren bitartean egin behar omen dira horrelako bidai eroak.

Neska talde hau Europa zeharkatzen duen bitartean beste batzu gerturago joango dira egun batzu pasatzera, beste batzu ordea hiria zaintzen geratuko dira; baina denek bere oporrak ahal den hoberen igaroko dituzte. ❑



zalu
FOTOKOPIAK
Berehalaxe!!
Prado 20
Tfnoa: 945-288248 • Faxa: 945-253291

MUGA
Noresta
MENDIA, ESKALADA ETA BIDAIETARAKO MATERIALEA.
LIBURUDENDA ESPEZIALIZATUA.
Plaza Nueva, 3
Tfnoa: 14 63 25 • 23 05 57
GASTEIZ
Paulino Caballero, 41
Tfnoa: 15 14 26
IRUÑEA

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Antonio Rivera
## Gasteizko begi



Antonio Riverak ez du erreferentzia kultural bihurtu denik uste baina azken hilabeteetan Gasteizko historiari buruz hitz egitean bere liburuen aipamena egitea derrigorrezkoa dela dirudi. Liburu guztiak hiri honi buruz idatzi dituen arren ez duela bitorianismoz jokatu ziurtatzen du Historia Fakultateko irakasle gazte honek.




BUSCAR'I
tintategia
Alfonbrak, mantak eta edredoiak,narruzko arropak, berokiak eta lumazko arropetan espezializatuak
DOMINGO BELTRAN, 26 • JUDIZMENDI, 20
TFNOA 14 19 45 • 27 05 83 • GASTEIZ

Auzoz-auzo, hemen:
-Ariznabarra: Ocio gaztelua, 21
Astulezgaztelua, 3
-Sansomendi: Valentin Foronda, 3
-Zaramaga: Zuta, 14
-Nafarrako Erregeak, 56
-Abendaño: Abendaño, 1-37
-Adurza: Nieves Cano, 6 • Pio XII, 5
-Adriano VII,
-Pedro Orbea, 2

zure euskal
LIBURUDENDA
Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ
Zerrikoia

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Gasteiz, hiri kontserbakorra eta moderatua

**"La ciudad levítica" liburuan 1876 eta 1936 urte bitarteko Gasteizko bilakaera aztertzen duzu. Zergatik aukeratu zenituen bi data hauek?**

Oso data garrantzitsuak dira Espainia eta Euskal Herriko historian. 1876an guk Foruak galdu genituen behin betiko eta Espainian epe politiko berri eta luze bat hasten da, berrezarpena. 1936an gerra zibila hasi zen eta horren ondorioz erabat gizarte berria sortzen da. Historian nahiko zaila da epeak mugatzea baina bi data hauek Espainia eta Euskal Herriko historia mugatzen dute eta ondorioz baita Gasteizkoa ere.

**Epe horretan Gasteiz hiri lebitikoa dela esan daiteke?**

Liburuaren tituloa tranpa txiki bat da. Titulo hori "Politika, ekonomia eta gizartea" tituloa baino erakargarriagoa da. Baina dena den, egia da 1915. urterarte behintzat Gasteizek hiri lebitikoaren ezaugarriak ditu: hiri txikia da, ez da oso dinamika, oso kontserbakorra da bai politikan eta baita etika mailan ere, kontraste handiegirik ez duen gizartea da, erdiko klase sozial zabalak daude, elizgizon eta militar asko bizi dira bertan eta gasteiztarrek hiriarekiko duten identifikazioa mantentzen da Guzti hori 60. hamarkadan aldatu egiten da, baina egungo Gasteizen ere hoietako ezaugarri batzuk ikusten dira.

**Zure liburu guztiak Gasteizi buruzkoak dira.**

Bai, eta arrazoia ez da bitorianismoa. Gasteiz gertuen daukadan errealitatea da eta ondorioz dokumentazio iturriak ere eskuragarriagoak dira. Dena den Gasteizko historia ez lokalista egiten saiatu naiz, arazo eta gai zabalagoak hartzen ahalegindu naiz. Hiri baten historia egin edo kontatzean ezin da inguruan duen mundua ahaztu. Gasteizko historiako datarik garrantzitsuenak Euskal Herriko, Espainia eta Europako data garrantzitsuenekin bat datoz.



✔ **Egungo Gasteizen hiri lebitiko horren ezaugarriek bizirik diraute.**

✔ **Gasteizi buruz dugun ezaguera aldatzeko lan egiten ari den jendea badago.**

**Gai nagusia Gasteiz izanda ere mugimendu sozialak dira zure liburuan gehien azpimarratzen dituzun puntuak. Zergatik?**

Historia egiteko nere moduak eredu sozial batekin zerikusia duela esan daiteke. Langileen bizimodua interesatu izan zait beti. Baina orain klase zabalagoetan jartzen dut nere arreta eta ez bakarrik langileetan. Egia esan, "La ciudad levìtica" hastean epe horretako langile mugimenduko historia egiteko asmoa neukan. Baina gero garai horretako klaserik garrantzitsuena ez zela konturatu eta hiri osoaren historiari buruz idazten hasi nintzen.

**Azken hilabeteetan Gasteizko erreferentzia kultural bihurtu zara, zergatik uste duzu hau gertatu dela?**

Hori esatea gehiegi dela uste dut. Gasteizei buruz daukagun ezaguera aldatzen ari den pertsona talde bat dago, 30-35 urte ingurko lagunak, eta neure burua talde horren barruan kokatzen dut. Baina besterik ez. ❑

udan euskaraz
arin-arin
ikastaro trinkoak eta barnetegiak
aek
Peru kalea, 8 Tfnoa: 22 60 50 • Jose Mardones kalea, 8 Tfnoa: 26 35 40

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Euskal Unibertsitaterantz




**Uztailaren 24ean erabakiko dira datorren urtean euskaraz martxan jarriko diren lerro berriak. Dauden asmoak aurrera ateraz gero zabalduko dira Gasteizen bertan, unibertsitatean ere, ikasketak euskaraz egiteko auker berriak.Gaur egun 60 irakaslek dihardute euskeraz Arabako Campusean. Aurten, bestalde, Araban UBI euskaraz egin dutenen ikasleen kopurua bikoiztu da iazkoaren aldean. Datu pozgarri hauek gorabehera, Gasteizko Fakultateen artean alde handiak daude euskarazko eskaintzari dagokionez. Baina Euskal Adarren egoera hobeto ezagutu nahirik txangoaldi txiki bat egin dugu Arabako Campusean zehar; hona hemen bertan ~~jasotakoa~~.**

## Magisteritza Eskola

Orain arte hiru adar zeuden: Zientziak, Giza Zientziak eta Filologia. Hiruetako irakasgai funtsezkoak eta hainbat hautazko euskeraz egiteko aukera eskeintzen zen 1987tik. Datorren ikasturtean Magisteritza osoa euskeraz edo erderaz egitea ahalbideratuko duen beste ikasketa egitamu bat abiaraziko dute orain artekoa bazterrean utziz. Izan ere, 7 espezialitate berri sortuko dira Bilbo, Donostia eta Gasteizko Magisteritza Eskoletan, Heziketa Fisikoa euskeraz Gasteizkoan bakarrik ikasi ahal izango delarik.

Unibertsitatearen euskalduntze prozesu honek, ordea, badu arrisku bat: «euskal adarretan ikasle gutxik izena eman eta ondorioz, euskarazko espezialitate berririk sortu ezin izatea edota daudenak desagertuz joatea», diosku **Maite Mendiburu** Gasteizko Magisteritza Eskolako Euskara Batzordeko ordezkariak (*).

## Geografia-Historia eta Filologia Fakultatea

Aipagarriena Historia da aurten kalera atera baita karrera osoa euskeraz egin duen lehenengo promozioa.

Eskoletan bezala, fakultate honetan ere hiru ikaskuntza eredu daude. Horiek 1.990.eko irailean onetsi ziren eta oraindik indarrean diraute, hainbatetan beren baliogarritasuna zalantzan jarri den arren.

Orain hiru urte sinatutako itun hori hainbat kasutan oso aintzat ez dela hartzen ikusita, «orain Euskara Batzordeak idazki bana igorri die sail

HADE EUSKALTEGIA
Elvira Zulueta, 4 (Prado parkearen ondoan ) • Tfnoa:23 09 44 GASTEIZ

Albenitz liburudenda
Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

guztiei xedatatuko hori bete behar dela gogora araziz», azaldu du Gidor Bilbao Euskara Batzordeko ordezkariak. Bere ustez, D1 eta A ereduak garatzea oso zaila izango ez den bitartean, C eredua betetzeak arazoa gehiago sortu eta sortuko du, irakasgaien izaera, ikasleen urritasuna edota hainbat irakasleren jarrera gainditu beharreko eragozpenik nabarmenenak izaten direlarik.

## Industri Ingeniaritza Teknikorako eta Topografi Ingeniaritza Teknikorako Unibertsitate-Eskola

Ikastoki hau B2 (irakasgai tronkalak euskeraz) izeneko ereduaren barruan dago. Aurtengo ikasturtean jarri da hau martxan 1. kurtsoan asignatura guztiak euskaraz eman dituztela. Datorren ikasturtean aurtengoari eusteko asmoa dute 1. kurtsoari dagokionez.

Aldiz, 2. kurtsoan bi irakasgai berri hasiko dira euskaraz. Beste guztiak, hautazkoak alegia, erderaz izango dira.

**Blanka Beitia** Euskara Batzordeko ordezkariak azaldu digunez, ez da errezagoa Letretako karrerak euskeraz egitea Zientzietakoak baino.«Dena hastea da».

## Farmazia Fakultatea

Atzeren dagoen Fakultatea dugu hau. Dena dela, ikasturte honetan Dietetika izeneko espezialidade batetako 1. kurtsoan irakasgai guztiak euskeraz eskeintzen hasi dira. Beste espezialidade guztiak erdera hutsean.

Datorren ikasturtera begira, aurtengoari eusteko asmoa dute, 1. kurtsoari dagokionez. Eskaerarik egonez gero, 2. kurtsoko irakasgairen bat ere euskeraz eman lezaketela adierazi digute.



## Patxi Goenaga

Patxi Goenaga Arabako Campuseko Errektorearen iritziz, euskal adarrek poliki poliki aurrera egin dute urte hauetan. «Horren lekukoa da kontratatu diren azken irakasle ia guztiak euskaraz emateko izan direla». Gaur egun Arabako Campusean 400dik gora irakasle daude eta horietarik 60k euskaraz dihardute. Fakultate guztiak ez doaz batera prozesu honetan eta «etorkizuna omen duten horiek atzean gelditzen ari dira, atzeren dagoena Farmazia Fakultatea izanik».

Bere asmoa da Arabako Campusean irakasgai derrigorrezko eta tronkalak euskaraz ere ikasteko modua eskeini ahal izatea eta hautazkoekin «ahal dena egitea». «Baina hautazkorik gehienak, ezinbestean, erderaz bakarrik eskeiniko dira», aitortu digu.

Euskal adarrak sortzeko betebeharrez galdeginik, honela erantzun digu: «Dirua oso kontutan hartzen dute eta karrera bat euskaraz egiteko oso jende gutxi apuntatuz gero, beldur naiz ea hori ezin izango den martxan jarri. Lehentasunen kontua da eta baliabideak mugatuak izaten dira beti», agertu du azkenik. ❑

## EUSKAL UNIBERTSITATERANTZ

| | Noiztik | Eredua | Kurtsoak/ Adarrak | Irakasgaiak | Irakasleak |
|---|---|---|---|---|---|
| Magisteritza Eskola | 1.993-1.994 | – | Denak | Haur hezkuntza<br>Lehen hezkuntza<br>Heziketa fisikoa *(1) | 13 |
| Geografia-Historia eta Filologia Fakultatea | 1.990 | D1 | Historia *(2) | 1. eta 2. zikloko irakasgai derrigorrezkoak euskaraz | 37 |
| | | A | Euskal Filologia | Dena euskaraz<br>Literatura Española eta Lengua Española ezik. | |
| | | C | Gainontzeko filologiak | 1. zikloko derrigorrezkoak eta hautazkoak euskaraz | |
| Ingeniaritza teknikoa eta topografia | 1.992-1.993 | B2 | 1. eta 2. kurtsoak | Algebra • Kalkulua • Kimika • Fisika • Irudigintza I eta II• Matematikaren gehipena edo Jariakinen mekanika *(3) | 5 |
| Farmazia Fakultatea | 1.992-1.993 | – | Dietetika: 1. kurtsoa | Biokimika • Mikrobiologia • Dietetika • Fisiko-kimika • Euskara teknikoa | 5 |

*(1): Bakarrik jarri dugu Gasteizen emango diren berriak
*(2): Hemendik bi urtetara Geografian ere hasiko dira
*(3): Bata ala bestea erabakitzeko dago oraindio

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# HAN *eta* HEMEN IKUSITAKOAK



▼

**MIKAELA PORTILLAK Gasteiztar historiagile ezaguna, Arabari buruz egin dituen ikerketak direla eta, «Doctor Honoris Causa» izendatua izan da berriki Euskal Herriko Unibertsitatean. Gure zorionik bihozkorrenak.**

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa













1.- «Siervas de Jesus» kalea, inoiz bukatzen ez diren konponketa lanak

2.- Gasteizko bideoaldia. Dagoeneko martxan.

3.- Everestetik bueltan jasotako musua.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**Nork** esan du aeroportuek ez dutela stresarik sortzen? Beti korrika, beti presaka, abiadura bizian dena. Begiratu, bestela Forondan atera dugun argazkia. Edo... akats bat ote? Baina beno, stressa arintzeko zinemara joteko baino hoberik ez dago










**Judimendi** auzoan, eta bertako auzo elkarteak bultzaturik, izen bera daraman aldizkaria sortu berri da. Ele bietan argitaratzen den aldizkari hau auzoan gertatzen denaren berri emateko asmoz jaio da. **Ongi Etorri!**

Cerveceria Alemana
SALTXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK
Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

Chimbo Jatetxea
Cuchilleria, 57 • Tfnoa: 27 28 91
GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

GEU
GASTEIZ EUSKALDUNA

# Elkartearen aurkezpen publikoa



***GEU-Gasteiz Euskalduna***
Elkartearen Batzar Eratzailea aurtengo apirilaren 2an egina izan arren, Gasteizko euskaldunen aurreko aurkezpen ekitaldia ekainaren 29rako utzi zuten. Hona hemen, saio horretako hizlarien jarduna laburbildurik:

**Xabier Galarraga** Geu-Gasteiz Euskalduna Elkarteko ordezkaria:

Txepetxen teorizazio berriak lagundu digu euskara ikur politikoa izatetik ikur linguistikoa izateko pausua ematen. Praktika zaharraren gaineko praktika berri baten beharra dago euskararen inguruko militantismoa edota funtzionalizazioa gainditu.

**Kepa Mendia** Gasteizko Optikari euskaltzale ezaguna:

Gasteizen dena irabazteko dugu. Gu izan gara euskararen susperraldia bizi duen belaunaldia. Gogoan izan behar ditugu, bestalde, Gasteizko eta Arabako euskalgintzan jardun duten beste batzu, hala nola, Umandi, Presa, Izaskun Arrue, Jon Bautista Gamiz elkartea, Olabide ikastola, AEK, etab. Giro hori zorogarria izanik ere, Gasteiz euskaldun berrien paradisua eta infernua da aldi berean. Halere, aipatu beharrekoak dira Administrazioak edo beste batzuk egindako ahaleginak, ETB, Euskal Filologia eta Egunkariaren sorrera lekuko. Guzti horri esker euskararen egoerak hobera jo du Gasteizen. Eusebio Osak esan ohi zuen esaldi bat errepikatuko dut nik: "ea denon artean ezlekuan dagoen euskara nahi eta behar dugun lekura eramaten dugun".

**Endrike Knörr** Arabako euskaltzaina:

Araba erabat euskalduna agertzen zaigu, zenbait txoko eta lurralde txiki izan ezik. XIX. mendean. Horrek erakusten du orduan oso gertu zegoela euskera. XX. mendean Gasteizko Apaizgaitegiarekin lotuta agertzen zaigu euskera . Geroago, 1963-64 ikasturtean, Olabide ikastola sortu zen. Arabako Aldundiak euskara Arabako ondarea zela aitortzeaz batera bertako administrazioan erabil zitekeela aldarrikatu zuen 1977an. Euskal Filologia 1978an sortu zen.

Analfabetismoak galdu du euskara. Beraz, alfabetakuntzan dago arazoaren konponbidea. Oraingo egoera ez da batere mesedegarria euskararentzat eta horregatik, GEU bezalako elkarteak oso eskertzekoak dira.

**M. Karmen Garmendia** H.P.I.N.-ko burua

Arabako haurrak neurri handi-handi batean euskaldundu dira azken hamar urteotan, hain zuzen ere, %46a igo da. Ahalegin handia egin da eta horrek bere emaitzak eman ditu.

GEU elkarteko Xabierrek esan duen bezala: "Auzolana euskalgintzarako" behar dugu. Hortik jo behar da etiketak guztien gainetik. Elkar osatu behar dugu Instituzioek eta herri mugimenduek. Ez dezagun inondik inora ere etsi, tarteka laino beltzak eta oso beltzak ikusten baditugu ere, izan gaitezen gauza eguzki uneak ere somatzeko. ❑

GEU GASTEIZ
Hilabetero
5.000 etxetan

ARABAKO ESPERANTO ELKARTEA
ESPERANTO? JES, VOLONTE!
Zapateria, 29 • Tfnoa: 22 05 70

GILTZA ARABA
ZERRAILDEGIA
LARRIUNETARAKO ZERBITZUAK 24 ORDUZ
zerrailak, giltzak, ateak kotxeak...
Tfnoa: 945-26 57 29
Jose Mardones, 7
01004 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## LIBURUAK




**Rakatapla, una historia de leyenda.**
**Jon Gotzon Laburu**
Arabako Foru Aldundua
150 orrialde

1906. urtean Laudion sortu eta urte hauetan hain emaitza oparo eman duen Rakatapla Kultur elkartearen historia azaltzen zaigu liburu honetan




**Ali Baba eta berrogei lapurrak**
**Patxi Zubizarretaren edizioa**
Pamiela
80 orrialde

Herrialde arabiarren enkantua, ahozko natarratibaten patxada eta kontakizun poetikoa. Nahi adina aurkitu ahal dugu Patxi Zubizarretaren liburu honetan.




**Estibaliz 93-1**
**Comunidad Benediztina de Estibaliz**
74. orrialde

Aldizkari erlijiosoa dugu honako hau. Orain arte urtekaria baina laster lauhilabetekaria izango dena. Oraingo honetan gaztelaniaz baina hurrengoak ele bietan.

## HONTZA

### Gazte-musika

### Demalafe: Hau bai zuzenekoa!

Laster beteko dira hiru hilabete Elefante Blanco diskotekako eskenatokian, Demalafé, Gasteizko rock taldearen agerraldia gertatu zela. Gau hartan Arabako Foru Aldundiak antolaturiko urteroko lehiaketan laukoteak arrakasta lortu zuen. Tubo Skape-k, Ironic Cancer Phobia-k eta A la Fuga-k, aukeraturiko talde sorta osatu zuten. Hura izan zen saritzat zuten tartaren lehengo zatia. Halere, denbora aurrera doa eta ezin izan ditugu oraindik ere gainerako puskak dastatu eta holantxe jarraituz gero garratzak litezke: agindutako grabaketa atzeratuz doa, baita Araban zehar egin beharreko kontzertu kopurua gutxitu ere.

Rock'n Roll-ak, Rithm and Blues elektrikoak, soinu trinkoak, Demalafe taldearen abestiak estaltzen dituzte. Hurrengo grabazioak aurrez ezagututako hiru kanta ekarriko digu: *«Elite»*, *«La mona»* eta *«La piel»*, hain zuzen: baina zoritxarrez, estudioan lortutako soinu kalitatea ez dator bat abesti hauen edertasun erritmikoarekin. *«Nahiago dugu maketan sortutako soinua diskoarena baino»*, esan digute Demalafékoek. Presa, denboraren muga eta motibazio eza ez dira lankide zuzenak izan, batez ere taldearen zuzeneko lan bikaina kontutan hartuz. Agian, gertatutakoa argi eta garbi adierazi asmoz, argitaratzear dagoen diskoan halako ohar bat jarri beharko litzateke: «Errealitatearekin zerikusirik izatekotan kointzidentzia hutsa izango da», eta zalantzaren bat geratuko balitz, Iñakik, taldearen abeslariak, aipatutako kontzertua gogorarazi zigun.

Onespena eskertzekoa da, baina ez genuke bidaia hor amaitzen dela pentsatu nahi. Demalafé taldeari ez litzaioke batere gustatuko behin irabazle izatearen oroimen soilarekin gelditzea. Musikaren mundua azkar doa eta lan handia egin behar izaten da mundu berezi horri eusteko, ez une bateko ahaleginagatik baizik eta traiektoria osoagatik gogoratuak eta maitatuak izateko. Hauxe dugu Demalafé-koen lanbidea, eta geuk gertu duten arrakastaz sinesten dugu. Aurrera!



**Joxemari/Txabi Arnal Gil**

axular
LIBURUDENDA
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

Huluma
MASAIA - QUIROMASAIA
*Kote Zubizarreta*
Olagibel, 20 •Telefonoa 25 92 06

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# hAurRAk

## Asmakizunak

Aitarik izan gabe
sortu naiz airean,
ama sortzen da
hiltzen naizenean.

(elurra)

Zeruan dago
eta infernuan.
Jaungoikoak badu
eta deabruak.
Nik ez dut
eta zuk aldean daramazu

(-n-)

Egunez odolkia,
gauez zimurra.
Puntu bat dute hasiera
puntu batean amaiera.

(mediak)

Bi bi dira
eta hiru lau,
lau hiru dira
eta bost lau.
Nola izan daiteke?

(zenbakien letrak)

Tontorrean zutik
gizonen gidari,
haizea dagoenean
begira berari.

(haizorratza)

Argal eta zurbil,
bihotza pizten zaio
sua badu hurbil.

(kandela)

Batera doaz
bi lagun zaharrak,
batak hamabi pausu
besteak bakarra.

(erlojuaren orratzak)

Soroan berdea
beltza plazan
eta gorria etxean.
Zer izango ote da?

(ikatza)

Egon ohi dira geldi
eta mugiturik,
lotan egunez
esnaturik gauez.

(izarrak)

Zer dela eta zer dela
garbituz eta garbituz
ileak jaten dituena?

(orrazia)

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK
zurbeltz
MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

ditare
MIHISEDENDA
UME ETA EMAKUMEENTZAKO
LENTZERIA ETA BARRUKO ARROPAK
Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# hAurRAk

## Liburua

# Aiton-amonak

Elbira liluratuta geratu zen euriari begira, arbolen adarrak etengabe astintzen ziren eta noizean behin untzi baten sirenotsa entzun zitekeen. Atsegina zen etxe barruan goxo eta gerizpean egotea.

Bere barneliluratik atera zen neska amaren garrasia entzun zuenean:

—Ari natzaizu esaten, asilo edo pentsionisten egoitza horietako batera eraman behar dugula!

Aitak mahaizpiaren atzean gordetzen zuen burua.

—Baina, emakume... Baina, emakume...

—Hori al da esan behar duzun guztia?

—Izan ere... horrela, bapatean...

—Denbora gehiegi daramat bera zaintzen! Amonak ez du ezertarako balio! Lana emateko, horixe!

Elbirak hotzikara somatu zuen. Aurrean eserita zeukan anaia Pedrori begiratu zion. Pedro, bere begi handiak zabalduz, aulkian mugitzen zen ezinegonez. ❑






## Aiton-amonak

Alboan duzuen texto horrekin hasten da Asun Balzolak idatzi eta ilustratu duen liburu hau. Bertan hirugarren adinekoei buruz hitzegiten zaigu, amona zaharra asiloan sartu nahi dute lana besterik ez duelako ematen.

Abiapuntu honetatik abiatuta gai honi buruzko ipuin bat idatzi zuen A. Balzolak, eta irakurtzeko modu atseginean, baina era errealitatea den bezain gordin, hirugarren adinekoen prolematika azaltzen zaigu Aiton-amonak liburu honetan. Irakurtzeko erreza eta sinplea dena, ilustrazio ugariz lagundurik, baina gai honi buruz pentsa eraziko dizun lana.

1986an kaleratu zen liburu hau "Kale gorrian" izeneko sailari hasiera emanez. Sail honetan hainbat arazori buruz hitzegiten zaigu eta orain arte lau liburu argitaratu dira, langabeziari buruzko Josetxoren egunkaria, delikuentziari buruzko Bufanda urdina, askatasunari buruzko Joantxoren fragata eta gaurko hau. ❑

HEGOALDE euskaltegia.
Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 - 01005 GASTEIZ

den-dan
haltzariak
Gerardo Armesto, 2 • Tfnoa: 24 38 49
01008 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# KIROLAK

# Badator Tourra!



**Uztailaren 25ean Indurain Pariseko podiumean egon daiteke berriz. Bere farrea ikusten badugu, txirindulari euskaldunak hirugarren aldiz jarraian Tourren garailea izango da, eta Giroan erakutsi zuenez, froga frantsesa irabazteko aukera handiak ditu. Miguel Indurainekin batera hainbat euskaldun eta arabar ere Frantzia zeharkatuko dute. Datozen orrialdeetan honi eta Tour 93ari gainbegirada bat emango diogu**

"Denok Indurainen aurka" lemapean hasiko da Tour 93a. Txirrindulariek aurkituko duten menua zabala eta zaila izango da. Lehen platera Alpeak izango da, bigarrena Pirinioak eta postrea erlojuaren kontrako frogak. Azken hau, postrea hain zuzen, Indurainen kezkarik handiena dela dirudi. Erlojuaren aurkako froga indibidualek faborito nagusia dute, Indurain alegia, baina taldekakoak ez dira bere gustukoak. Taldekako erlojuaren kontrako etapa oso luzea da(85 km.), laugarren ihardunaldian burutu beharko da eta Banesto taldea ez da froga hauetan trebea den hoietakoa.

Joan den urteko Tourra Donostian hasi zen, hau dela eta, Pirinioetatik igaro ziren txirrindulariak lehen egunetan. Hala ere, ez ziren Pirinioetan barrena sartu eta ikutu besterik ez zuten egin. Aurten berriz, hiru egun daude mendi hauetan. Egun batzu lehenago, Alpeetako bi etapetan txirrindulari bat baino gehiagok txirringatik jaitsi eta lasterketa utziko du. Hortaz, Tourra iazkoa baino menditsuagoa dela esan dezakegu.. Menditsuagoa eta modalitate indibidualean erlojuaren aurkako kilometro gutxiago. Hau Indurainen alde dago ala kontra?.

Indurainen etsairik nagusiena Uztailean izango duen sasoia izango da, ona baldin bada, berak iraba-ziko du. Hau Giroan erakutsi zuen, bera ondo egonez gero, ez du etsairik. Indurain ez da txirrindulari arrunt bat, berari bere garaian Eddy Merckx edoJacques Anquetil-ek bete zuten paper nagusia dagokio. Ez da makina bat baina batzutan ematen du.

Ezustekorik gertatu ezean, Bugno, Chiappucci, Zulle, Rominger, Breukink, Alcala... podiumeko bigarren eta hirugarren postuak banatu beharko dira.


TXIRRINDUZ

Judimendi Etorbidea, 12
Tfnoa: 28.73.48
GASTEIZ



Txirrindulak
Txirrindula gaiak
Txirrindulari jantziak

# Arabarrak Pariserako bidean



## Francisco Javier Mauleon

**Jaioteguna:** Gasteiz, 1965-IX-16
**Taldeak:** Lizarrako Txirrindularitza Taldea, Razesa, Kas(hiru urte amateur bezala eta urtebete profesionaletan), Clas-Cajastur (aurtengoa bostgarren denboraldia da). Aurten kontratua bukatzen zaio.

**Zure garaipenik garran-tzitsuena:**
Iaz Espainiako Itzulian ira-bazi nuen etapa (Narancon).
**Tourrari begira, egizu zure "porra":**
Indurain, Claudio Chiappu-cci, Tony Rominger ala Alex Zulle.
**Tourra hastear dago, zein da zure ametsa?:**
Parisen aurreneko hogeien artean egotea gustatuko li-tzaidake. Etaparen bat..., bai-na hauek oso garestiak sal-tzen dira.
**Nolakoa da Tony Romin-ger?:**
Lider hutsa da. Hori bai, herabea da, gelara berehala joaten den hoietakoa. Bestal-de, egiten diozun lana segidan eskertzen dizu. Tour honetan bere zailtasunik handiena beroa izan daiteke. Bera hotza eta euriaren laguntzaz hobe dabil.




## Jon Untzaga

**Jaioteguna:** Laudio, 1962-VIII-20
**Taldeak:** Txirrindularitza Elkarte Laudiotarra (gazte mailan), Kas, Brasileña eta Txirrindularitza Elkarte Laudiotarra (amateur bezala), Kas (profesionaletan bi urte), Seur(3), Clas-Cajastur (talde honetan bigarren denboraldia betetzen ari da).

**Bereziki gogoratzen duzun garaipena:**
Iazko Espainiako Itzulian, Pla de Beret-en amaitu zen etapa.
**Tourrari begira, egizu zure "porra":**
Indurain, Chiappucci eta Rominger.
**Zein da zure helburua Tour 93an?:**
Ondo ibiltzea. Zorterik ea dagoen.
**Tony Rominger Clas-Cajastur taldearen liderra da, irabaz dezake?:**
Tony inkognita da. Azal txuriko txirindularia da eta ez dakigu zelan jasango duen beroa. Bira txikietan munduko onena da. Tourrean geroak esango du.



## Javier Murgialday

**Jaioteguna:** Agurain, 1962-IV-2
**Taldeak:** Aguraineko Txirrindularitza Eskola, Michelin eta Salkon (gazte mailan), Brasileña, Kas (profesionaletan bi urte), BH(1), Amaya(3). Aurten amaitzen du kontratua.

**Zure garaipenik handiena:**
Donostia-Pau etapa, joan den urteko Tourrean.
**Tourrari begira, egizu zure "porra":**
Miguel Indurain, Gianni Bugno, Chiappucci ala Tony Rominger.
**Tourra datorren larunbat-an hasiko da, zein da zure ametsa?:**
Iazko emaitza oraintxe bertan sinatuko nuke.
**Zein izango da Amaya taldeko burua?:**
Lale Cubino eta Oliverio Rincon. Gure helburuak etapa nagusia irabaztea eta sailkapen orokorrean lehen hamarren artean sartzea dira.

AZOKA
deportivos
Zure kirol- oinetakoak
Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33
GASTEIZ

"UPELA" MOTRI
SAGARDOTEGIA • ZALDITOKIA
Abuztuan eta Irailan itxita
Tfnoa: 908-67 31 08 ALAIZA (Araba)

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**•80. Frantziako Tour**
**•Frogaren 90. urtemuga**
**•Uztailaren 3tik 25era**
**•Ibilbidea: 3800 km.**

### ETAPAK

•20. etapa gehi prologo bat. 1992an baino etapa bat gutxiago.

•12 etapa lauak izango dira eta bost goi mendietan (92an hiru izan ziren)

•Erlojuaren kontrako frogak lau dira (prologoa barne). Bat taldeka burutuko da eta besteak indibidualki.

### KONTUTAN HARTZEKOA

•Tour honetan bi etapa mendateetan bukatzen dira(Isola 2.000 eta Pla de Adet). Txirindulariek 20 mendate igo beharko dituzte, bedaratzik 2000 m. baino gehiago izango dute eta 14, Pirinioetan daude. Aldiz, aurten txirindulariak ez dira Alpe d`Huez-etik igaroko.

•Modalitate indibidualean erlojuaren aurkako kilometroak 128 dira(1992an 136). Uztailaren 5ean 6,8 km.(Prologoa Puy-du-Fou-n), 12an 65km. eta 24ean 55 km. Taldeka 85 km. ibiliko dira, iaz ordea, 63 km. izan ziren. ❑




ALISAS
TABERNA
EZ DAGO PINTXORIK
KUTXI • GASTEIZ



JATETXEA
HIRUAK
Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

URTEGI-ALDE
SAGARDOTEGIA
Urrunaga(Araba) Tfnoa: 45 50 67

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Agenda

**4** **KONTZERTUA: Udal Banda** 12,30etan Beñat Etxepare Antzokian

**8** **SOLASDIA:** Villasusoko tertuliak: «**Kultura demokrazian**» VillaSuso Jauregian arratsaldeko 8etan.

**10** **DANTZA PLAZAN: Folklore Akademia**. Enparantza Berrian 7,30etan

**19** **IHARDUNALDIAK: Musikoterapia** Hasierako ekitaldia. Principal Antzokian, arratsaldeko 8etan.

**21** **KONTZERTUA: Luis Paniagua** Principal Antzokian, arratsaldeko 8,30etan.

**24** **DANTZA PLAZAN: Folklore Akademia**. Enparantza Berrian 7,30etan

**25** **KONTZERTUA: Udal Banda** 12,30etan Florida parkean

## ZINEMA

Liburutik Pantailara

**GURIDI 3 ARETOAN**
**SAIOAK: 5,30-8-10,30**

Hilak 2: «**Elegir un Amor**». Joel Schumacher
Hilak 3: «**La guerra de los Rose**». Danny de Vito
Hilak 4: «**Resplandor en la oscuridad**». David Seltxer
Hilak 5: «**Mister Johnson**». Bruce Beresford
Hilak 6: «**El cuarto protocolo**». John Mackenzie
Hilak 7: «**Tomates verdes fritos**». Jon Avent
Hilak 7: «**Wilt**». Michael Tuchner

## JAZZ Gasteiz




## EGITARAUA

**Mendizorrotzan, gaueko 9,30etan**

Uztailak 13, asteartea

**Hermeto Pascoal e grupo**
**Tito Puente & Los hombres de oro del jazz latino**

Uztailak 14, asteazkena

**The Brecker Brothers**
**Bill Frisell Band**

Uztailak 15, osteguna

**Abbey lincoln quartet**
**«Diz-en omenez» Slide Hampton & Tehe Jazz Masters**
Konbidatuak: **Paquito d'Rivera eta Jon Faddis**

Uztailak 16, ostirala

**Especial Quartet - Pat metheny, Joshua Redman, Christian McBride, Billy Higgins**
**John Scofield Quartet**

Uztailak 17 larunbata

**The Mnahattan Transfer & Orquesta sinfonica de RTVE**

### XXI. MENDEKO JAZZa

**Dendaraban, arratsaldeko 6,30etan**

Uztailak 13: **Stephen Scott Trio**
Uztailak 14: **Jesse Davis Quartet**
Uztailak 15: **Wolfgang Muthspiel Group eta Tom Harrell**
Uztailak 16: **Thomas Chapin Trio**
Uztailak 17: **Tommy Smith's forward Motion**

### GAUERDIKO JAZZa

Uztailaren 13tik 17ra:
Canciller Ayala Hotelean
**Maria Muldaur**
Ciudad de Vitoria Hotelean
**Barbara Dennerlein Trio**

### JAZZa KALEAN

Uztailaren 10, 11, 12 eta 13an
**La Vella Dixielan Jazz Band**




LARRUKI
Larruaren Artisautza
*KANPOKO ARTISAUTZA, BITXIKERIAK*
Kutxilleria, 26
Tfnoa: 28 38 86
01001-GASTEIZ

ZAPATEGIA - ARTISAUTZA
ZAPATARI
Herreria, 86 • GASTEIZ

ANBOTO
TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA
Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 - 01001 GASTEIZ


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Agenda

## MUSIKA
«Pop-rock»aren gurpilean

**GAUEKO 10ETAN**, gure auzoetan kontzertuak Gasteizko pop eta rock taldeen eskutik.

**Uztailean:**

4, Igandea: Zaramagan **Desconocido** eta **lapsus**
11, Igandea: Adurtzan **La Zona muerta** eta **La Rosa Negra**
16, Ostirala: Alde Zaharrean **Apotheke** eta **A la Fuga**
23, Ostirala: Errotan **The Byron's Blue Devils** eta **H2SO4**

## ANTZERKIA
Oraingoa eta betikoa

**PRICIPAL ANTZOKIAN**
**8,30ETAN**
**COMPAÑIA ESLAVA**

Hilak 5: **«La tercera Palabla»**. Alejandro Casona
Hilak 6: **«Dos paletos en Madrid»**. Pedro Muñoz-Seca
Hilak 7: **«Vamos a contar mentiras»** Alfonso Paso
Hilak 8: **«La malquerida»**. Jacinto Benavente
Hilak 9: **«Anacleto se divorcia»** Pedro Muñoz-Seca
Hilak 10: **«Balada de los tres inocentes»** Pedro Mª Herrero
Hilak 11: **«Bajarse al moro»** Alfonso de Santos

## Euskarazko mezak

**Larunbatetan:**
6,30etan El Pilar Elizan
7,30etan Erreparadoretan

**Igandeetan:**
11etan Estibalitzen (ele bietan)
11.30etan Jesus Langile Elizan
12etan Erreparadoretan

## ERAKUSKETAK



**Olagibel Aretoan** (Enparantza Berria)
Uztailaren 1etik 15era arte KARTEL ERAKUSKETA: «GASTEIZKO JAIAK» eta «NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIA»

**Caruso Kafetegian** (Enrike Eguren 9)
Uztailan zehar: ANA CARVALLO Lan grafikoak. Abuztuan: JOSE ANTONIO LARRAURI. Pinturak

**Kultur Etxean** (Florida)
Uztailaren 12ra arte «Ume marrazkilariak pakearen alde» Uztailaren 12tik 23ra. MOISES TORIBIO BARRAGAN eta HERMINIO CASAS FERNANDEZ. Egurrezko tailak eta Oleo pintura.

**Trayecto Galerian** (Ramiro de Maeztu 10).
Uztaila osoan zehar «INTERIORES». Erakusketa kolektiboa

**Luis de Ajuria Aretoan** (General Alava 7).
Uztailaren 1etik 15ra arte. VITAL KUTXAREN ONDAREA. Koadro aukeratuak

**San Prudentzio Aretoan** ( San Prudentzio 30).
Uztailaren 15a arte «Espainiako pintura Felipe II.aren garaian» Uztailaren 30tik Abuztuaren 10ra: ARABAR JANTZIAK. Erakusketa

**Pajarita Aretoan**. (Kutxilleria kalea, 22)
Uztailaren 2tik 15ra GORKA LOPEZ CALLEJA. Argazkiak. 17tik 30ra arte PABLO LOSA. Pintura

**Aitor Urdangarin Galerian** (Florida 24).
Uztailaren 7ra arte. LOLA IBARRONDO. Akuarela. uztailaren 8tik 31ra «FONDO DE COLECCION»

**Artelarre Galerian:** ( San Francisco 18).
Uztailaren 16tik Abuztuaren 3a arte «GASTEIZ, BERE PINTOREAK IKUSIA» Erakusketa

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia
Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

EL PARRAL
JATETXEA ERRETEGIA
OKELA ETA ARRAIN ERREAK
Cantòn de San Fco. Javier, 4 • Tfnoa: 27 68 33 • 01001 GASTEIZ-

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## XIII NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA

**Principal Antzokian gaueko 10etan**



Uztailak 28, asteazkena

**Grupo nacional de Danzas de Honduras**
**Hego-Koreako taldea**

Uztailak 29, osteguna

**Tiranako Albaniar gazteriaren konpainia ofiziala (Albania)**
**Gambiako taldea**

Uztailak 30, ostirala

**Haiti-ko «Bacoulou» Ballet nazionala**
**Bulgariako Sliven taldea**

Uztailak 31, larunbata

**«Marraka» Indarra Dantza Taldea** eta **Gasteizko Folklore Akademia**

## ARABA HERRIZ HERRI

**Agurain**
Jazz Kontzertua:«Mr. Blue» Uztailak 9, Plazan

**Amurrio**
Samaniego Antzerki taldea. «Las aventuras de Tom Sawyer» Uztailak 30, 12,30etan Plazan

**Antoñana**
«Gallur». musika herrikoaia. Uztailak 10, 7etan Plazan

**Araia**
Kontzeruta: «A la Fuga» eta «Tubo skape» Uztailak 25 24etan Frontoian

**Aramaio**
Biasteriko Jotariak. Uztailak 25, 12,30etan Plazan

**Arluzea**
Kilkir Txaranga. Uztailak 18, 11etan Plazan

**Artziniega**
Arabako Dantzarien Biltzarra Uztailak 11, 13etan Plazan

**Buradon Gatzaga** (Salinillas de Buradon)
Abesbatza. Uztailak 10, 8,30etan Elizan

**Burgelu** (Elburgo)
«Vivir del cuento» Ñake Antzerki taldea. Uztailak 9-19,30etan Gizarte Etxean

**Done Bikendi Harna** (San Vicente de Arana)
Abesbatza. Uztailak 11-13etan Baselizan

**Ekora** (Yecora)
Ertzantzaren musika-banda. Uztailak 10, 13,30etan Elizan

**Estibalitz**
Alaitz Abesbatza. Uztailak 17 iluntzeko 8etan eta Uztailak 31- 8etan Santutegian.

**Gezaltza**
Biasteriko Jotariak. Uztailak 11-20etan Plazan

**Izarra**
«Mari Anbotoko Dama» Panta Rhei. Antzerki taldea Uztailak 11-13etan Plazan

**Kanpetzu Argantzun** (Lapuebla de Arganzon)
Magia eta Ilusionismoa. Uztailak 11, arratsaldeko 7etan Udaletxean.

**Kontrasta**
Biasteriko Jotariak. Uztailak 10-arratsaldeko 6etan Plazan

**Labarka**
«Estofado de Toro» Pikor Antzerkia. Uztailak 10-19,30etan Plazan

**Labraza**
Lagunak-Soinuak Uztailak 25-12,30etan Elizan

**Langarika**
Magia eta Ilusionismoa. Uztailak 18-12,30etan Udaletxean

**Lantziego**
Organo kontzeruta Uztailak 18, 12,30etan Elizan. Gasteiz Antzerki Taldea. Uztailak 25-19,30etan Plazan

**Lagran**
Magia eta Ilusionismoa. Uztailak 10-19etan Udaletxean

**Laudio**
Gasteiz Big Band Uztailak 16-7,30etan Herriko Plazan

**Legutio**
Rock:«A la fuga»•«De mala fe» Uztailak 31 eguerdiko 1,30etan Plazan

**Maeztu**
Biasteriko Jotariak-Bekereke Antzerki taldea. Uztailak 18-20etan Plazan

**Mainueta** (Baños de Ebro)
Araiako Musika banda. Uztailak 11-13etan Plazan

**Marieta**
Izalde Trikitixa. Uztailak 17-11,30etan Erromerian

**Nabaridas**
Gasteizko Trikitixa Eskola. Uztailak 11-13etan Plazan

**Olabarri**
Erletxo Gaitariak. Uztailak 18-11,30etan Plazan

**Oion**
Ertzantzaren musika banda. Uztailak 18-20etan Kultur Etxean.

**Pipaon**
«El circo pobre» Antzerkia Uztailak 17-19,30etan Plazan

**Pobes**
«Estofado de Toro» Pikor antzerki taldea. Uztailak 17-13etan Plazan

**Rivabellosa**
Chetti Anaiak-Pailazoak Uztailak 25-20etan Plazan

**Uribarri-Harana**
Ikuxka Txaranga. Uztailak 9-10etan Plazan

**Zalduondo**
Izalde Trikitixa uztailak 31, goizeko 11etan Plazan

**Zanbrana**
Ertzantzaren Musika Banda. uztailak 10-20etan Elizan

**Zurbano**
«Mari Anbotoko dama» Panta Rhei Antzerkia. Uztailak 17-19,30etan Plazan

Arabako Foru Aldundia
Kultura Saila.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# SUKALDE TXOKOTIK

## BERENJENA ERREAK

**Osagaiak**

- Patata txiki batzuk
- Piper gorri bat
- Bi berenjena
- Lau kipula txiki

Barazki guztiak ondo garbitu behar dira. Hau egin ondoren ipini bandeja batean oliba eta lehen aipatu ditugun barazkiak.

Labea bero bero dagoenean, su motelean jarri eta bandeja sartu. Egiten direnean, piper gorriak eta berenjenak tiratan moztu, patatak eta kipulak osorik utzita. Nahi izanez gero, mahonesa saltsarekin jan daitezke

## MAKAILUA PIL-PILEAN

**Osagaiak**

- Kilo bat makailua zatitu
- Oliba olioa (makailuaren lodieraren bi heren edo)
- Berakatzak
- Pipermina

Lurrezko ontzi batean baratxuriak eta pipermina jarriko dugu oliotan. Hauek gorritzen direnean atera eta gorde. Olioa ozten utzi. Makailua, azala gorantz duela, olio hotzetan sartuko dugu, eta oso kontu handiz mugituko dugu jelatina ateratzeko. Pixkanaka pixkanaka, gordeta genuen olioa erantsiko diogu, itxura ona lortu arte.

Prest dagoenean, baratxuriak eta pipermina erabiliko dugu platera ondo apaintzeko.




## BANANAK RONAREKIN

**Osagaiak**

- 4 banana
- 150 gr. azukre
- 200 zentilitro kafe
- 100 gramu almendra xigortu
- 60 gramu gurin
- Kopa bat ron

Bananei azala kendu eta zatitu. Zartaginean gurina jarri eta urtzen denean banana zatiak bota, lau edo bost minutuz berotzen utziz. Gainetik kafe beroa bota eta utzi egosten, borborrean laga likidoaren erdia geratu arte. Orduan rona bota eta su eman. Zerbitzu aurretik, apaingarri gisa, almendra xehetuak erantsi.



Bacalao Giraldo
•Egunero makailu gesaldua •Makailua eramateko prest
•36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN
«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»
Angulema, 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran - Gasteiz


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# DENBORAPASA

## ✎ Gaia: Euskal txirrindulariak



### ZEHARRETARA

1-Boroa; 2-Kristautasuna sortu zeneko herrialdea; eguerdia baino lehen; 3-Guk; (Ald.) Interjekzioa; txori mota; 4-Orga hitz-elkarketan; oxigenoa; onarturen infinitiboa; 5-Italiako telebista; Euskal Batasuna; ene; ...-zag, ziraldoka; 6-Bikain; neska izena laburtua; akitu aditzaren infinitiboa; 7-Borroka mota; Nikaraguako hiriburu; 8-Espainiako Alderdi Sozialista; Bizkaiko herriska; berrogeita hamar; 9-Frantsesez eta; dut (pl.); erdal aurrizkia; 10-Gai; (ald.) ahate; eta laburtua; 11-(Ald.) Bizkaieraz zaina; arrain mota; 12-Ene; Emak ... baita; (Ald.) Nafarroako ibilgailuetan; 14- Fruta bat; deskantsuan jarri

### GOITIK BEHERA

1-(Ald.) Nafarroako ibilgailuetan; 2-Bi hitzaren bokala; irakasten; herri hizkeran zer; 3-Korrikalari afrikar ezaguna; molibdenoa; ganadu; 4-Herri hizkeran dauka; Cocker kantariaren izena; udazkeneko hilabete; 5-(Ald.) Lugoko matrikula; ni; ugaritasun atzizkia; errepikatua kilkerrak egiten du; 6-Dato kaleko kafetegia; Gasteizko ikastola bat; kasik; 7-Alde; (Ald.) Derrepentean; 8-(Ald.) Bizkaieraz omen; nau hipotetikoan; euskal alderdi politiko desagertua; 9-(Ald.) Okaran; euskal izena; idi hitz elkarketan; 10-Garratz, astun; 11-Nagarroako herriska; ahoskabetasuna; 12- (Ald.) Nafarroako ibilgailuetan.



## Erantzunak



## Asmakizuna

**Nola egingo zenuke, sei poxpolu kenduz lau geratzeko?**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



GEU GASTEIZ

5.000 Etxetan

Eskuratu zurea!

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



## Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

| DEPARTAMENTUA | ZERBITZUA | HELBIDEA | TELEF. | FAXA |
|---|---|---|---|---|
| ZERBITZU OROKORRAK | ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA | Dato, 11 | 16 11 88 | 16 15 93 |
| LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA | HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK) | Dato, 11 | 16 13 01 | 16 15 93 |
| KULTURA | | Machete plaza, z/g | 16 12 75 | 16 12 77 |
| O.K.U.S./DEMSAC | ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC) | Done Bikendi aldapa, z/g | 16 12 40 | 16 12 51 |
| HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA | EUSKARA | Espainia plaza, z/g | 16 15 22 | 13 09 65 |
| GIZARTE ONGIZATEA | ADMINISTRAZIO-ATALA | Espainia plaza, z/g | 16 13 60 | 16 13 63 |
| INFORMATIKA | | Vera-Fajardo margolaria, 5 | 16 14 13 | 16 16 00 |
| HEZKUNTZA | ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA | José P. Ullibarri, z/g | 28 16 35 | |
| | EL PILARREKO HAUR ESKOLA | Caracas, 6 | 22 94 99 | |
| | F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA | F.J. Landaburu, z/g | 28 35 45 | |
| | HAURTZARO HAUR ESKOLA | Santa Maria kantoia, z/g | 14 34 33 | |
| | IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA | Astronomoak, z/g | 28 44 95 | |
| | OLARIZUKO HAUR ESKOLA | Dantzari plaza, 6 | 27 28 95 | |
| | TXIMELETA HAUR ESKOLA | Ricardo Sacristán, z/g | 22 46 34 | |
| | SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA | Federico Baraibar, 17 | 28 82 25 | |
| | TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA | Gasteiz hiribidea, 61 | 22 95 49 | |
| | ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA | Nafarroako erreg., 16-B | 28 94 49 | |

AYUNTAMIENTO DE VITORIA GASTEIZ KO UDALA

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa